

**29**º  
zbk



Beasaingo  
Udala

# Beasaindik

SEPTIEMBRE 2018 IRAILA

Udal Aldizkaria Revista municipal

## Gimnasio berritua kirolegiko erabiltzaileentzat

Nuevas máquinas en el gimnasio del polideportivo



## GUTUNA

**Elena Ruiz**Kiroletako  
zinegotzia

# KIROLA PRAKTIKATZEKO AUKERAK ZABALDUZ

Beasaindarren artean kirol praktika sustatzea dugu helburu eta hori dela eta, hainbat inbertsio eta proiektu egin ditugu. Urte bete igaro da Loinatz futbol zelaian belar artifiziala jari zenetik. Denbora honetan zelaiaren erabilera nabarmen areagotu da eta herriko talde gehiagok izan dute bertan jokatzeko eta entrenatzeko aukera, berdintasunaren aldeko urratsak ere emanez. Partida garantzitsuen eszenatoki ere izan da eta aurten, lehen aldiz, Donosti Cup txapelketa ezaguna ere jokatu da Beasainen eta horrek eragina izan du tokiko merkataritza eta ostalaritzan.

Kanpoko igerilekuetan ere belar artifiziala jari da eta udan espazio txukun eta egokiagoaz gozatu ahal izan dugu guztiok. Orain, uda igarota, beste erabilera batzuk ere izango ditu kanpoko igerilekuko zelaiak.

Arku tiraketarako gune berria ere uztailean estreinatu zen eta aurretik, makina berriak ere jarri genituen Igartza inguruau adineko pertsonek kirola praktika dezaten.

Kirodegian hainbat inbertsio egin ditugu; bazkide gehiago lortzeko baino egungo bazkideak mantentzeko asmoz, dagoena zainduz eta beharrezkoadena berituz. Hortaz, ikasturte berriari, berikuntzakin ekin diogu eta jada kirodegiko erabiltzaileek gimnasio berriaz gozatzeko aukera

dute eta urtea amaitu aurretik crossfit aretoa prestatu eta kirodegira sartzeko eta takilak zabaltzeko sistema berria ere jarriko dugu martxan.

Beraz, proiektu eta inbertsio ezberdinak lantzen jarraituko dugu, herritarrei aukera berriak eskaintzeko eta beasaindarren artean ohitura osasuntsuak sustatzen jarraitzeko.

## *Espacios de calidad para la práctica deportiva*

Resulta necesario hacer inversiones si queremos ofrecer a las y los beasaindarras espacios de calidad y nuevas alternativas de ocio y deporte.

Por ello, además de instalar hierba artificial en el campo Loinatz y en las piscinas exteriores, lo cual nos ha permitido aumentar el uso de ambos espacios, hemos instalado en varios parques máquinas para que las personas mayores hagan ejercicio. También se ha construido un nuevo rocódromo, una sala de boxing y hemos comenzado el curso con nuevas máquinas en el gimnasio. Antes de acabar el año crearemos una sala de crossfit e instalaremos un nuevo sistema de acceso y apertura de taquillas en el polideportivo.

Y en adelante, seguiremos realizando inversiones que promuevan la práctica deportiva y redunden en beneficio de la ciudadanía.


## LAS OBRAS DE ZAPATARI Y MARTIN ARANBURU CUMPLEN LOS PLAZOS **14 aparkaleku gehiago sortu dira, saneamendu eta zerbitzu sarea berritu da eta espaloi eta errepeidea maila berean jarri dira**

**14 plazas más de aparcamiento****Renovación de la red de servicios y mejora de la accesibilidad unificando la altura de las aceras con la calle**

Coste: 403.101€ (Empresa adjudicataria: Sasoi Eraikuntzak)

# MAKINA BERRIAK KIROLDEGIKO GIMNASIOAN

Egungo bazkideak mantentzeko eta fidelizatzeko, kiroldegia erabiltzaileen behar eta eskakizunetara egokitzeko eta azken batean, persona orori kalitatezko instalazioak eskaintzeko helburuarekin hainbat inbertsio eta hobekuntza egin dira kiroldegiaren. Horietan azkena, gimnasioan jarri diren makina berriak izan dira. Beraz, erabiltzaileen eskariei erantzunez, espazioa txukundu eta berrantolatu du kiroldegia kudeatzen duen enpresak, makina berriei tokia egiteko.



**Se ha reorganizado y mejorado el gimnasio para instalar nuevas máquinas a fin de ofrecer unas instalaciones de calidad que fidelicen y satisfagan las necesidades y peticiones de las personas usuarias del polideportivo**

## Eskaintza berria Nueva oferta

**Korrika egiteko 4 zinta**  
4 Cintas para correr



**Kardio ariketak egiteko 2 makina**  
2 máquinas para ejercicios de cardio



**Kardio makina eliptikoa**  
Máquina elíptica de cardio



**Indarra lantzeko erabilera anitzeko makinak** Máquinas multiusos para trabajar la fuerza



## LA PEATONALIZACIÓN DE LA PLAZA ERAUSKIN A BUEN RITMO



A principios de agosto dieron comienzo las obras de reforma de Erauskin Plaza, que tendrán una duración de 5 meses. Previamente, el Ayuntamiento convocó a las y los vecinos de la zona para informarles de las fases y las posibles afecciones de las obras.

### Un espacio pensado para las personas

Con la remodelación, las zonas verdes se redistribuirán y se verán incrementadas por lo que las y los beasaindarras podrán disfrutar de un nuevo espacio de encuentro, más accesible, cómodo, seguro, agradable y totalmente peatonal.

Será nexo de unión de otros dos importantes ejes peatonales: Gernika pasealekua y Kale Nagusia. Con ello, se pretende, además de revitalizar e impulsar este espacio, potenciar el comercio de la zona y mejorar la calidad de vida y el día a día de la ciudadanía dando prioridad a las personas frente a los vehículos.



# Ehunmilak, G2h eta Marimurumendi



Eguraldiagatik bertan behera utzi baziren ere Ehm eta G2h lasterketak, igandean Marimurumendi maratoia korritu ahal izan zen. Zorionak antolatzaile eta voluntario guztiei egindako lanagatik!

Agradecimiento a la organización, personas voluntarias y servicios de emergencia por su rápida y eficaz respuesta de evacuación y atención de las y los corredores tras la suspensión de las pruebas.

## Apoyando el atletismo

Atletismoa sustatzeko helburuarekin udalak eta Txindoki atletismo taldeak sinatutako hitzarmenaren baitan Beasain Saria jokatu zen Ordizian ospatutako atletismo topaketan.

El Ayuntamiento patrocina la Beasain Saria en el Meeting de atletismo dentro del convenio suscrito con el club de atletismo Txindoki para promover este deporte.



## Fusilatuen 82. urteurreneko oroimenezko ekitaldia

Beasaingo fusilatuen 82. urteurreneko omenaldia egin zen fusilatuen monumentuaren aurrean. Homenaje en recuerdo a las personas fusiladas y castigadas por los militares, falangistas y requetés que entraron en Beasain en 1936.



## Inauguración del nuevo campo de tiro con arco

Arku tiraketa erakustaldi baten bitartez inauguratu zen kirol hau praktikatzeko udalak egokitutako gune berria.

Exhibición de tiro con arco en el nuevo campo habilitado en Salbatore en respuesta a las peticiones del club Igartza Arku Tiraketa.



## Erosketa txekeen zozketa aurtengo beherapen azokan

Herritarrei udako denboraldiko produktuak prezio ezin hobeantzen eskaintzeko Beherapen Azoka burutu zuen Bareak elkarrean eta erosleen artean erosketa txekeak ere banatu zituzten.

Los establecimientos pertenecientes a Bareak celebraron la feria de rebajas y sortearon 300 euros en cheques.



## Feria especial de julio



Uztailoko azoka berezian loren apaindutako balkoien eta establecimenduen lehiaketako sariak banatu eta asteburuko egonaldiko sari berezia zozketatu ziren.

En la feria especial de julio se repartieron los premios a los balcones y escaparates mejor decorados y se sorteó un fin de semana entre las personas que realizaron sus compras en la feria.

## Astigarretako San Gregorio ermitako erromeria

Hainbat hamarkadetan galdua egon ondoren, duela hiru urte berreskuratutako meza eta erromeria ospatu ziren Astigarretako San Gregorio ermitan.

La ermita de San Gregorio recupera su tradición con la celebración de la misa y la romería por tercer año consecutivo.



## Beasain al ritmo de la música

Kalitatezko 11 ikuskizun eskainiko dira uztaila eta abendua bitartean Igartza Musika programaren baitan. Kontsulta itzazu datozen kontzertuak webgunean eta gozatu!

Beasain sigue acogiendo conciertos de calidad dentro del programa Igartza Musika que busca fortalecer la oferta cultural y musical del municipio.

## XVI. MENDEKO BEASAINGO EMAKUMEEI BURUZKO IKERKETA

# EMAKUMEAK HISTORIAREN ERDIGUNEAN KOKATUZ

Historiaren interpretazio eta irakurketa gehienak, gizonezkoen erdigunean eta ardatzean jartzen duten kontakizun gisa iritsi zaizkigu. Ikuspegi androzentriko horrek, emakumeak eta emakumeen munduak ikusezin bihurtzen ditu, ikuspegi femeninoa eta emakumeen ekarpenak ezkutatuz. Euskal Herriko Historiaren kasuan ere gauza bera gertatu izan da.

Hori dela eta, Beasaingo Udalak, Iraitz Agirre Aranguren-en eskutik, Beasaingo historiari buruzko ikerketa eta prozesu herritarra egingo ditu genero ikuspegitik.

Igartzako jauregian Iraitz Agirrek eskainitako "Igartzatik Ternuara" hitzaldiaren haritik dator ikerketa hau egiteko nahia. Hitzaldi hartan XVI. mendeko euskal emakumeek Gipuzkoako bizitza sozial, ekonomiko eta kulturalean zein paper jokatzen zuten azaldu zen azaletik, genero harremanak eta emakumeen rol eta betebeharak aztertuz.

Marko hori oinarri hartuta, ikerketa honek helburu izango du azterketa hori herri mailara ekartzea, emakumeek Beasainen izandako papera, aitortza soziala eta garaiko sexu-genero botere harremanak ezagutzeko eta testigantzak jasotzeko, fokua emakume beasaindarren historia eta istorioetan jarri, memoria historikoa emakumeen narrazio eta kontakizunetatik abiatuta berreskuratu ahal izateko.

El Ayuntamiento, con la ayuda de Iraitz Agirre, llevará a cabo un estudio en torno a las mujeres beasaindarras del siglo XVI. para conocer el papel que jugaban en la vida social, cultural y económica de Beasain y analizar las relaciones de aquella época en lo que a sexo-género se refiere.

De esta manera se quiere recuperar la memoria histórica desde una perspectiva femenina que en ocasiones ha sido silenciada, prevaleciendo la narración contada por los hombres.



**IRAITZ AGIRRE ARANGUREN**  
antropologoari elkarritzeta

Noiztik zabilta historia genero ikuspegitik aztertzen?

Ikasketaz antropologoa naiz, baina betidanik interesatu izan zait historia, baina azken urteotan hartu du forma nire interes horrek. 2005ean Ternuan izan nintzen Selma Huxley historiagile anglokanadiarrarekin batera, euskal baleazaleek XVI. mendean han utzitako arrastoak aztertzen eta gure historiaren pasarte hartaz ikasten. Hamabi urte hauetan ez dut kontakturik galdu Ternuan egindako lagun aditurekin (arkeologoak, historiazaleak..) eta 2008an berriz itzuli nintzen hitzaldi bat ematera, Ternuak euskal literaturan izandako lekuaren inguruan berba egiteko. Gainera, kasik kasualitatez, lan kontuak edo herrigintzako kontuak medio, garai hartako gertaera eta gaietara gerturatzeko aukera izan dut azken urteotan, XVI. mendeko euskaldunen argazki sozial eta kulturalera gerturatzeko aukera eman didana. Kontutan hartu behar dugu oso aro garrantzitsua izan zela hau, ordura arte oinarri sozial, kultural eta ekonomikoak guztiz aldatu ziren eta, modernitate aroari bide emanez. Baina iraganera begira jarritako guztietai, beti galdera berberarekin topo egiten nuen; non zeuden emakumeak?

**Horregatik iruditzen zaizu dela garrantzitsua emakumeak historiaren erdigunean kokatzea?**

Historiaren irakurketa gehienak (denak ez esatearren) guztiz androzentrikoak dira,

*"Siempre que me he puesto a analizar el pasado me he hecho la misma pregunta: ¿dónde estaban las mujeres?"*

*"Las mujeres han sido parte y mitad del pasado y de la historia de nuestro pueblo y debemos reconocer su papel"*



XX. mendeko bigarren hamarkadako irudian, emakume beasaindarrak laian.  
(Argazkia Juantxo Unanuak utzita)

gizonezkoak erdigunean jartzen dituen narratiba eta irudikapenak.

Kontatzea merezi duena, kontatua izan dena, kontatua izan den modua.. gizonezkoek ardaztu dute, bai balio sistema bezala, bai gertakari garrantzitsuak eta oroituak izatea merezi duten gertakariak bezala. Baino emakumeak historiaren eta gure iraganaren erdia ere izan dira eta eurak jokatutako paperaren aitortza egitea ezinbestekoa da. Zein papel bete zuten, genero harremanak nolakoak izan ziren... testuinguru bakoitzeko genero harremanak ezagutzea jendarte bat ulertzeko ezinbesteko giltza da. Horiek denak hausnarketara ekarri eta deseraikiz memoria inklusiboak sortzea benetan garrantzitsua dela iruditzen zait. Ez bakarrik iraganari begiratzeko, batez ere gaur egungo gizon eta emakumeoi dagozkigun erronkak ulertu eta etorkizunera begira, narratiba justuagoak proiektatzeko ere.

***“Analizar las relaciones de género en un contexto concreto permite entender dicha realidad y sociedad y esto es muy importante para crear una memoria inclusiva, no sólo mirando al pasado, sino sobre todo para entender los retos que tenemos mujeres y hombres de cara al futuro, a fin de crear narrativas más justas e igualitarias”***

**Zergatik aztertuko da XVI. menda eta zehazki zein ikerketa egingo duzu Beasainen?**

XVI. mendean genero harremanak guztiz eraldatu ziren eta horregatik da horrelako ikerketa bat egiteko aro interesgarria.

Asmoa da artxiboak arakatzea eta Beasaingo emakume aitzindarien erreferentziak bilatzea,

eta horiek, testuinguru historikoan kokatzen saiatzea. Iturrien azterketa egitea izango da lehen lana eta ostean, topatzen dugunarekin, hau dena bere garai historikoan ulertzen saiatzea izango da helburua, Euskal Herrian zein eskualdean bertan emandako bestelako gertaerekin bateratzen saiatuko garelarik. Herriko historiagileak ere bide-lagun izatea espero dut bide honetan.

**Beraz, herritarrek ere ikerketaren parte izan daitezten nahi duzu. Zergatik?**

Uste dut memoria berreskuratzea ariketa kolektibo eta herritarra izan behar duela. Iragana oso interesgarria iruditzen zait, atzera begirakoan, gure gaur egungo betaurrekoekin ulertzeko hain errazak ez diren kontzeptu eta errerealitateekin topatzen gara errerealitatea ulertzeko koordenadak ezberdinak direlako. Hau da, genero harremanak, zerbait historikoa eta sortuak direla nabarmen ageri da eta beraz, gertaera batzuengatik eman dira aldaketak. Gaur egun, genero harremanez hainbeste dihardugula, horiek harreman modu justuago eta parekideagoan garatu nahi ditugu eta iruditzen zait, atzera begirakoak, hainbat gako eman ditzakeela. Hau ez da ordea pertsona batek artxiboak arakatzen dituelako ematen, bertatik ateratako ondorioak eztaba idatzzen direlako baizik. Gurako nuke, egia esan, ikerketa historiko honetatik ateratako gakoak herriko eragileekin landu eta hausnartzea.

***“Recuperar la memoria es un trabajo colectivo que nos ayuda a entender la realidad actual, por ello espero contar con la ayuda y participación de la ciudadanía beasaindarra”***

# LAZKAIBARKO FESTEN ANTOLAKUNTZA BATZORDEARI ESKER ONA AGRADECIMIENTO A LA COMISIÓN ORGANIZADORA DE LAS FIESTAS DE LAZKAIBAR



Argazkia: Juancho Unanua

Urtero irailaren 24an, Lazkaibar auzoko jaiak ospatu izan dira. Aurten 75. urteurrena beteko lukete, baina herritarren batzordeak jaiak antolatzeari utzi dio kideek adinean aurrera egin eta jaiak antolatzen jarraitzeko erreleborik aurkitu ez dutelako. Hori dela eta, **Beasaingo Udalak eskertu nahi die orain artean egindako lana.**

Todos los años, el 24 de septiembre se ha celebrado la fiesta de Lazkaibar. Este año las fiestas hubieran cumplido el 75 aniversario, pero la comisión de fiestas, al no encontrar relevo, ha dado su labor por finalizada y desiste de organizar la fiesta. Por este motivo, **el Ayto. de Beasain desea agradecer toda la labor realizada durante tantos años.**

## DOAKO FORMAZIO IKASTARO BERRIAK

NUEVOS  
CURSOS  
GRATUITOS DE  
FORMACIÓN



### 2018-2019 IKASTURTEA CURSO 2018-2019

Mekatronika kurtsoa Curso de Mecatrónica	
Izen-emateak Inscripciones	Iraila Septiembre
Kurtsoaren hasiera Comienzo del curso	Urria Octubre

#### Informazio gehiagorako eta izena emateko:

Para más información e inscripciones:  
[www.goierrieskola.org](http://www.goierrieskola.org) | 943 88 00 62

## LOTURAK ENLACES



- **Antzizar kiroldategia**  
[www.antzizar.net](http://www.antzizar.net)
- **Udal Euskaltegia**  
[www.beasain.eus/euskaltegia](http://www.beasain.eus/euskaltegia)
- **kzGunea**  
[www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus)




- **Igartzako Monumentu Multzoa**  
[www.igartza.eus](http://www.igartza.eus)
- **Musika Eskola**  
[www.beasaingomusikaeskola.eus](http://www.beasaingomusikaeskola.eus)

Lege gordailua SS 403-2016

## IZENA-EMAN HIZKUNTZA ERREFORTZU ZERBITZUAN

INSCRÍBETE EN EL SERVICIO DE  
REFUERZO LINGÜÍSTICO

Ikasturte hasiera Comienzo curso



Irailak 24  
septiembre

Izen emate orria ikastetxeetan banatuko ziae gurasoei (irailak 10-11) eta Berriotsura eraman beharko da (irailak 12-19): goiztan (10:00-12:00) edo arratsaldetan (16:30-19:00). La hoja de inscripción se repartirá en los centros educativos (10-11 de septiembre) y deberá entregarse en Berriotsa (12-19 de septiembre): por las mañanas (10:00-12:00) o por las tardes (16:30-19:00).

## DATUEKIN JOLASEAN

Hizkuntza Errefortzu Zerbitzuko 2017-2018  
ikasturteko datuak Datos del curso 2017-2018  
del Servicio de Refuerzo lingüístico

Adina Edad	Erabiltzaile kopurua Nº de personas usuarias
4-5	54
6-7	42
8-9	27
10-11	21
12-16	35
Udako ikastaroak Cursos de verano	20
<b>GUZTIRA</b>	<b>199</b>

## JAKINARAZPENAK NOTIFICACIONES

### EGUTEGI FISKALA CALENDARIO FISCAL 2018

ZERGAK ETA TASAK IMPUESTOS Y TASAS	Kobrantza epea Periodo de cobro
Ibilgailuak finka hiritarretan sartzeko sarrera Entrada de vehículos en fincas urbanas	2018.09.01 - 2018.10.31
Garaje sarrera Entrada a garajes	2018.09.01 - 2018.10.31
Zabor-bilketa 2. seihibloka Recogida basuras 2º semestre	2018.09.01 - 2018.10.31



[www.beasain.eus](http://www.beasain.eus)



Beasaingo Udala